

EBAZPENA, 2026ko UZTAILAREN 1ekoa, UPV/EHUko ERREKTOREARENA, ZEINAREN BIDEZ LUZATZEN BAITA 2026ko EKAINAREN 23an IRAKASLE LAGUNTZAILE DOKTOREAK KONTRATATZEKO ARGITARATUTAKO DEIALDIAN INSTANTZIAK AURKEZTEKO EPEA

Egiaztatu egin dira honako hauek:

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- - 2026ko ekainaren 23an, irakasle laguntzaile doktoreentzako kontratuak esleitzeko lehiaketa publikoa argitaratu zen EHUren webgunean.

Bigarrena.- - Ebazpen hartan xedatzen da instantziak aurkezteko epea 2026ko ekainaren 24tik 2026ko uztailaren 10era bitartekoa izango dela, biak barne.

Hirugarrena.- 2026ko ekainaren 30ean, zenbait zuzenketa argitaratu dira, deialdian jasotako plaza batzuei eragiten dietenak.

Gertakari horiei zuzenbideko oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- -Eskumena.

UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen errektoreordeak eskumena dauka, eskuordetzaz, ebazpen hau emateko, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpena dela bide (errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko ebazpena, 2025eko otsailaren 19ko EHAA).

Bigarrena.- - Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, honako hau dio 32. 1 artikuluan: "Administrazioak, ofizioz edo interesdunek eskaturik, luza dezake ezarritako epea, manuren batek kontrakoa ez badio, komenigarritzat jotzen bada eta hirugarren batzuen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Epearen erdia izan daiteke luzapena, gehienez ere. Epea luzatzeko erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie".

Hirugarrena.- Gaur EHUren webgunean argitaratu den zuzenketaren ondorioz, beharrezkotzat jo da instantziak aurkezteko epea 2026ko uztailaren 17ra arte luzatzea. Luzapen horrek bat egiten du aplikatzekoa den araudian ezarritako denbora mugekin eta, gainera, ez die hirugarren batzuei kalterik eragiten.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- - Irakasle laguntzaile doktore plazak esleitzeko deialdiari dagokionez UPV/EHUko errektoreak 2026ko ekainaren 23an emandako ebazpenaren harira instantziak aurkezteko epea luzatzea, 2026ko uztailaren 17ra arte.

Bigarrena.- - Epea luzatzeko ebazpen honen kontra ezin daiteke inolako errekurtsorik aurkeztu, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokion errekurtsua jartzeko aukera, halaxe xedatzen baitu urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 32.3 artikuluan.

Leioan, sinadura digitalean ageri den datan.

ERREKTOREA

Eskuordetzaz: Efren Areskurrinaga Mirandona (errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpena, otsailaren 19ko EHAA)

Irakasle-ikertzaileen errektoreordea / Vicerrector de Personal Docente e Investigador